

Donostian, mila bederatzireun eta berrogetamaboskarren urteko Azilaren ogetabostan, Ekauta-jauregian, Etxaide jauna maipuru dala ta Irigarai, Lekuona, Villasante, Mitxelena ta Oleaga euskaltzainak eta Arrue ta Lojendio euskaltzain-ordeak batirik egiten da egungo deituriko Euskaltzaindiaren batzarra.

Araudizko otoitza egin-eta, lenaurreko batzar-agiria irakurri da, ta aobatez onetsia izan da.

Urrengo "Landar-lander" itzak arturik, Etxegarai jaunaren lantxo bat irakurri da. Pozik entzun da lan au, eta bardindo beronen gaiari buruz, batzarkide batzuk adierazoriko oar egokiak.

Mitxelena jaunak, ildako Azkueren Euskera-erdera Iztegiaren argitaratze barriazko txosten oso ederra dirakur. Berau dala-ta eztabaida sakonetan sartu dira batzarkideak. Azkenez, urrengo batzarrena Mitxelenak gai onen egitamura dagokozan zertzelada guztiakin ekarri dagiala erabagi da.

Guatemalan argitaratzen dan *Eusko-gogoan* agertutako asmo bat Arrue jaunak egoki eritzi-ta, Euskaltzaindiak zerbait erabagi bear leukela dino. Asmo ori, Gramatizazoko euskal-itx zerrenda bat atondu bear litakela da. Osoan onetsi da ta euskaltzainak onetan ekin dagiela ebatzi da.

Etxaide jaunak adierazoten dau Arabako Ekautari Euskaltzaindi onentzat laguntasuna ta soroskia eskatu dautsazala. Ondo dago.

Gero aitatu da Jon Bilbao euskaltzaleak "Indice lingüístico vasco" deritxon lanari dakiola. Atseginez artu da barri au.

Azkenez, euskerearen alde orainarte egin dauzan lanen esker-erakutsiz eta aurrerkoen pozgarri izan dakion, Nemesio Etxaniz jauna urgazletzat artzea erabagiten da.

Eta beste barik, araudizko otoitzaz emoten dako batzarrari amaia.